

ERANSKINA

"EUSKARAN BIDELAGUN 2025-2026" PROGRAMA

1. Deialdiaren xedea.

1.1. "Euskaran biDelagun" hezkuntza-programa 2025-26 ikasturtean egingo da, eta komunikazio-trebetasunak indartzeko eta laguntza didaktikoa emateko jarduerak eskainiko ditu, 2016-17 ikasturtetik aurrera D eredua ezarri zuten Nafarroako eremu ez-euskalduneko ikastetxe publikoetako D ereduako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat.

2. Programaren deskribapena eta ezaugarriak.

2.1. "Euskaran biDelagun" hezkuntza-programaren helburua da ikasleen ahozko ulermena eta adierazpena indartzea, eta ikasgelako eguneroko jardueren osagarri den errefortzu didaktiko bat eskaintzea, ikasleek hizkuntza-tresna gehiago eskura ditzaten eta gaitasun hobea lor dezaten komunikazio-trebetasunetan.

2.2. Programa 2016-2017 ikasturtetik aurrera D eredua ezarri zuten aurrera Nafarroako eremu ez-euskalduneko ikastetxe publikoetako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat da.

2.3. Programan osotara 24 saio eskainiko dira izena eman duen talde bakoitzean, astean bat. Gehienez ere 48 talderi esleituko zaie, eta taldeak 20 ikaslekoak izango dira gehienez.

2.4. Saioak honela banatuko dira: 8 saio 2025eko irailetik abendura bitartean eta 16 saio 2026ko urtarritik ekainera bitartean.

Jarduera eskola-orduetan eta euskara irakasgaiaren ohiko saioan egingo da; Haur Hezkuntzaren kasuan, tutoreak emandako saioetako batean, espezialistak sartzen ez direnean.

Bileren ordutegia ikastetxearen eta enpresa esleipendunaren artean adostuko da.

3. Egutegia:

2025eko irailetik abendura 8 saio egingo dira, eta 16 saio 2026ko urtariletik ekainera.

Jarduera eskola-orduetan egingo da: euskarako saioaren batean Lehen Hezkuntzan, eta tutoreak ematen dituen saioetako batean Haur Hezkuntzan.

Ordutegia ikastetxearen eta enpresa esleipendunaren artean erabakiko da.

4. Eskaera egiteko epea eta modua.

Deialdia web-orri hauetan argitaratuko da:
www.educacion.navarra.es eta www.navarra.es

Ikastetxe bakoitzak nahi adina talderentzat eskatu ahal izango du programa. Talde bakoitzeko gehienez 20 ikasle egongo dira. Eskaera bat egingo da talde bakoitzeko.

Ikastetxeek web-inprimaki baten bidez egingen dute eskaera. Inprimakia aipatu web orrietan argitaratuko da 2025eko irailean. Hezkuntza Departamentua, erakunde esleipendunarekin lankidetzan, taldeak esleitzeaz arduratuko

da, deialdian ezarritako irizpideen arabera, eta taldeak egingo direla bermatuko du, ikastetxe eskatzaile bakoitzeko maila batean gutxienez. Ikastetxe bakoitzeko talde kopurua ikastetxeek guztira egindako eskaeren kopuruaren arabera izango da.

Erakunde esleipendunarekin saioak zehaztu ondoren, eta Hezkuntza Departamentuko Eleaniztasunaren eta Arte Irakaskuntzen Zerbitzuak gainbegiratuta, erakunde esleipenduna bera jarriko da harremanetan irakasleekin bien artean jarduera antolatzeke. Eskola-lanaldian egingo diren saio hauen ordutegia ikastetxeak eta enpresa esleipendunak adostuko dute.

Ikastetxe bakoitzari esleitutako tailerren kopurua ikastetxeak egindako eskaeren kopuruaren, eskaera orokorraren eta inskripzio-ordenaren arabera izanen da.

5. Hautaketa-batzordea eta esleipenerako baremoa.

5.1. Hezkuntza Departamentuak hautaketa-batzorde bat izendatuko du, kide hauek izango dituenak:

Presidentea: Euskara Ataleko burua, edo hark eskuordetutako pertsona.

Batzordekideak:

Euskararen Sustapenaren eta Didaktikaren Bulegoko burua, edo hark eskuordetzen duena, eta Euskara Ataleko irakasle-aholkulari bat.

5.2. Hautaketa-irizpideak eta baremoa:

Batzordeak irizpide hauen arabera baloratuko ditu ikastetxeen eskabideak:

- Inskripzio-ordena hartuko da kontuan.
- Ikastetxe bakoitzeko talde kopurua eskaera guztien kopuruaren arabera izanen da.
- Programak eskainitako tailer kopurua baino eskaera gehiago jasoz gero:
 - o Ikastetxe bakoitzean gutxienez tailer bat egingen dela bermatuko da.
- Izena eman duten talde guztiek ezingo balute egin jarduera, itxarote-zerrenda bat osatuko da. Ikasturtean zehar talderen batek baja ematen badu, itxarote-zerrenda horretan dauden ikastetxeei deituko zaie baja horrek uzten duen lekua betetzeko. Zerrenda hori egiteko inskripzio-ordena hartuko da kontuan.

6. Esleipena ebaztea eta jakinaraztea.

6.1. Hautaketa-batzordeak txanden behin-behineko esleipena argitaratuko du bere web-orrian (www.educacion.navarra.es eta www.navarra.es). Une horretatik aurrera, 7 egutegi-eguneko epea egongo da erreklamazioak aurkezteko.

6.2. Erreklamazioak ebatzi ondoren, behin betiko esleipena aipatutako web-orrietan argitaratuko da.

7. Irakasleen eginkizunak.

7.1. Jardueraren ardura duen irakasle tutoreak hizkuntza-aholkulariarekin eta ikasgelako ikasleekin batera lan egin beharko du. Tutorearen ohiko jarduerak sakonago lantzeko saioak izango dira, batez ere. Horrela, gelako dinamikak indartu nahi dira, irakasle tutorearen eta aholkulariaren

artean aldez aurretik adostutako jardueren bidez, asteko gainerako saioetan modu autonomoan lan egiten jarraitu ahal izateko.

7.2. Ekainean jarduera amaitzean, ikastetxe parte-hartzaileek programaren balorazio idatzia egingo dute, eta ondorioak erakunde esleipendunari helaraziko dizkiote. Erakunde esleipendunak, halaber, amaierako memoria bat egingo du, eta Eleaniztasunaren eta Arte Irakaskuntzen Zerbitzuko Euskara Atalean entregatuko du, jarduera amaitutakoan.